

BALOREZKO PROPOSAMENA



Guk 3D inpresioa ardatz izango duen komertzio bat sortzeko asmoa dugu. Hala, 3D inpresora izango da gure enpresaren "protagonista" eta tresna hau baliatuz behar duen edonori bere diseinua 3D inpresora batean inprimatzeko aukera emango genioke, izan ere, gaur egun 3D inpresorak ez daude edonoren eskuragarri eta gure helburua tresna berri hauen irisgarritasuna bermatzea da. Inprimatu nahi diren produktuak edozein izan daitezke, Moldeak, maketak... hala batez ere unibertsitateetako ingeniarietako arkitektura etab. etako ikasleek erabiliko lukete eta horregatik, gure zerbitzua ingeniarietako eta arkitektura fakultateetara zabalduko dugu. Baina horrez gain sormena duen edozeinen diseinuak ere inprimatu ahal izango ditugu, esaterako, etxeko apaingarriak eta bestelako dekoraziorako objektuak, besteak beste imanak etab. Kasu honetan, diseinua internetez egingo luke eta gero guk tailerrean inpresio zerbitzua eskainiko genioke. Lehenengo erabilera geroz eta ohikoagoa izanagatik ez da oso ohikoa dekoraziorari lotutako produktuak inprimatzea. Horregatik, gure enpresa ideia nahiko berritzailea da.

Gure produktuaren abantailetakoa bat pieza bakar batean eginga izango dela da. Hala, ez da hain erraz apurtuko. Bestetik, merkatuan fabrikatzeko beste metodo azkarrago eta eraginkorrago bat sartzeko modua izango da.

Hala, gure bezeroek izango duten aukeretako bat **personalizazioa** izango da. Izan ere, online sortuko dugun web orri bati esker eta bezeroak bere produktu propioa diseinatzeko aukera izango du.

Bestalde, **eskuragarritasuna** da eskainiko dugun beste abantailetakoa bat. Izan ere, gaur egun 3D inpresioa geroz eta entzunagoa izanagatik, ez dago edonoren eskura. Gure helburua, teknologia berri hau ahalik eta jende gehienarentzat irisgarria izatea da, hau da, teknologia berri hau ahalik eta jende gehienak erabili ahal izatea. Horregatik, hasiera batean gure zerbitzua ingeniarietako eta arkitektura fakultateetara zabaltzea da, izan ere, mundu hauei oso lotuta daude 3D inpresorak eta uste dugu abantaila handia izango dela ikasleentzat 3D-n inprimatu ahal izatea.

Horrez gain, herriko eta inguruetako ekitaldi ezberdinetan ere parte hartuko dugu, gure produktuaren berri emanez eta bide batez jendeari zerbitzu berri honen berri emanez. . Modu honetan, marketina egiteaz gain gure komertzioak gizartearekiko izango duen **gizarte-erantzukizuna** erakutsiko genuke, hau da, puntako teknologia edonoren eskuragarri jartzea.

Azkenik, horrelako teknologia berriztagarriak erabiliz, gizartearen aurrerapen teknologikoan aportatuko dugu, izan ere, geroz eta jende gehiagok ezagutuko ditu teknologian egiten diren azken berrikuntzak eta geroz eta jende gehiagok erabili ahal izango ditu. Horrek bizitza asko erraztuko dio jendeari.

Helene Mendizabal
Oliver Zubillaga
Beñat Landa

Unai Delpuerto